

PAVEL BÜCHLER

Pavel Büchler artista eta idazleak bere lana aurkeztu zuen *We Rule the School* mintegian. Hitzaldian honela laburbildu zuen bere jarduera: "gauzak dauden bezala uzteko ahalegin bat, baina gauzak nola dauden eta zer egin behar dugun jakiten saiatzea ere bai".

Pavel Büchler Pragan jaio zen, baina 1985ean Ingalaterrara aldatu zen. Haren hitzetan urte hura bigarren bizitza bat hastea izan zen berarentzat, "1980tik 1985era bitartean nire hezibidea amaitu eta benetako ikastaldia hasi zen. Garai hartan Thatcher eta Ronald Reagan gobernuburu ziren; *altzairuzko hesia* eta *apartheid*-a bizirik zeuden; lehenengo *Live Aid* kontzertua izan zen; Frantziako Gobernuak *Rainbow Warrior* ontzia hondoratu zuen. Postmodernitatearen teoria foro guztietan eztabaidatzen zen; "irudikatzea eta jabetzea" eskoletako gai nagusia zen. Walter Benjaminen pentsaera curriculumean sartu berria zen, eta margolaritza jaun eta jabe zen".




Pavel Büchler zuzendarikide hasi zen lanean Cambridge Darkroom argazki galerian, eta aldi berean, hitzaldiak ematen zituen eta zenbait argitalpenetan kolaboratzen zuen. "Arte modernoak goiena jo zuenez, beste biderik ez genuen, eszeptizismoa baizik. Dagoeneko ezin genuen sinetsi aurrerabidearen metanarratiban. Ahalbide bakarra berraztertzea zen, berridaztea, berrasmatzea. Metodo bakarra aipua zen, eta baliozko jarrera bakarra, berriz, ironia. Egoera askatzailea eta aldi berean zapuztailea zen. Nire printzipioak koloka zeuden; artista nintzen heinean ez nengoen horretarako prest. Hala ere, garbi zegoen, antza, egoera nahasia eta korapilatsua izan arren, norbaitek eutsi behar ziola arteari bizirik, gizarteak ondo sentitu eta bere tolerantzia agertzeko aukera izan zezan, gutxienez, bere baitan hartuz artista haiek, normaletik kanpo zeuden ekintzak egiten zituztenak", esan zuen. Nahiz eta, Pavel Büchlerren iritziz, "gauzak dauden bezala uztea" artista batek nahi duen azken gauza den, ez zegoen beste aukerarik. Horregatik, argitu zuen, bere proiektuen bidez ahaleginak egiten ditu gauzen egoera ulertzeko, haiekin zer egin behar dugun jakiteko, eta dauden bezala uzteko.

Ondoren, bere lan batzuk aurkeztu zituen. Hasteko, bi argazki, 1975etik 1979ra bitartean eginak, artean Pragan bizi zela. Irudiek paisaia elurtu bat eta espetxe bat agertzen zituzten, eta egileak *land-art*-ekotzat jo zituen.

Aurkeztu zuen bigarren lana 1977an egina zen Manchesterko Cheetham Library delakoan, mundu anglosaxoiko liburutegirik zaharrenean, hain zuzen ere. Urte hartan artista egoiliarra izan zen Pavel Büchler, eta bitarte hartan ikasi zuen nola 1845ean Marx eta Engels han bertan egonak ziren, "leiho txiki baten aurrean eserita, testu iraultzaileak idazten", artistaren hitzetan. Handik gutxira aukera izan zuen une hartako irudi bat eskuratzeko, eta Engelsen eskutitz bat ere bai, pasadizo hura kontatzen zuena. "Azkenean erabaki nuen leku berean esertzea gertaera hartaz nola balia nintekeen hausnartzeko, eta zerbait egiteko. Orduan ohartu nintzen nola leihotik bandera ingelesa ikusten zen, haizetara, katedraleko dorrean, eta pentsatu nuen Marxek leku berean zabaldua bandera komunista irudikatuko zuela", azaldu zuen. Pavel Büchlerrek erabaki zuen iragazki gorridun laser bat erabiltzea katedraleko bandera argitzatzeko, eta hala, leihoan barrena ikusten zen bandera hura gorria zelako ilusio optikoa sortzeko.

Joko optikoez baliatuta sortutako beste proiektuetako bat Manchester Museum-en gauzatu zen 2005ean. Hala, *Life after Death Between the Natural World and World Cultures* izeneko lana 2003tik 2005era bitartean egoiliar egondako artisten lanen erakusketari egindako ekarpen bat izan zen. Pavel Buchlerrek esku-hartze bat egin zuen museoan Egiptori eskainitako aretoan, non argiztapena maneiata haxe lortu zuen: bisitariak beren burua beira-arasa batean islatuta ikus zezaten, barruko objektuak ikusi ordez. Helburua zen bisitariak han zeudela jakitun izan zitezten, eta egote hartaz hausnarketa egin zezaten. Izenburuak badu zerikusirik erakutsitako objektuaren azalpen txartelarekin, eta Naturaren Historiako aretoaren eta Antropologiako bildumen artean egotearekin.

Artistak erakutsi zuen laugarren lana Manchesterko *Centre for Freudian Analysis and Research* izeneko instituzioan egindakoa izan zen. Hango erakusketa batean parte hartzeko deia egin zioten artistari 1998an. Orduan egin zuen esku-hartzea hitzaldi aretoko komunera ematen zuen atea irekitzea izan zen. Komuna, nahiko narriatuta zegoena, etengabe keinuka ari zen bonbilla batek argitzen zuen. "Gauzak dauden bezala utzita, batzuetan, guztiz bestelako eragina lortzearen adibide bat da proiektu hau", azaldu zuen.



Lau urte geroago, Ingalaterrako hiri berean gertatu zen *Tonight!* arte publikoko proiektua, Artranspennine03 izeneko erakustaldiaren barruan Pavelek ekoitzi zuena: zenbait horma-irudi ezarri zituen helburu hori ez zuten toki batzuetan.

Era berean, 2002an, egonaldi bat egin zuen Pavel Buchlerrek Finlandiako Tampere hirian. Egonaldi haren ondorioz erakusketa bat egin zuen, non *Hard love* izeneko proiektua erakutsi zuen: Tampereko Lenin Museotik zetozen bigarren eskuko hemeretzi eskaintza-liburu ziren. "Tamperen sortu zen Nokia, baina han dago, baita ere, Lenini eskainitako azken museoa", azaldu zuen Pavel Büchlerrek. Hango artistek hemeretzi arkatz desberdinez ezabatu zituzten eskaintza haiek, eskuetan jantzita peoien hemeretzi eskularru pare zituztela, obra batean bazter utziak. Banakako erakusketa batean erakutsi zen lan hura, Tampereko Taidekeskus Mältinranta eta Galleria Saskia erakustokietan, hain zuzen ere.

Musika eta irakurketa

Musikarekin zerikusia duten lanek leku berezia izan dute Pavel Büchlerren arte jardunaren barruan. Artelekuko aurkezpenean halako bi lan erakutsi zituen. Lehenengoa, *White label* izeneko, 2003koa, artistaren arduretako bat agertzen duena: Pavel Büchlerren arabera "teknologia ia zaharkituei azken probetxua ateratzea: gramofonoari, kasu honetan". Lana, Deutsche Gramophone Factory delakoan aurkeztua, diapositiba bat proiektatzea zen.

Bigarren lana, *Encore* izeneko, 2005ekoa, zuzeneko kontzertuetako entzuleek egiten dituzten soinuen bilduma bat da, 1999tik artistaren bilduma pertsonala osatzen duten diskoetatik hartuta. Soinuen bilduma jaso egin zen eta 7 hazbeteko eta 4 minutu eta 33 segundoko single batean grabatu zen. Proiektua Kunsthalle Bern galerian izandako erakusketa batean aurkeztu zen, komisarioa Philippe Pirote zela.

Irakurketa izan da Pavel Büchlerren beste arduretako bat; haren lanek zenbait idazleren eragina izan dute, hala nola, Laurence Stern eta Franz Kafkarena. Azken bi urteotan egindako hiru lanak horren erakusgarri dira. *Life and Opinions* izenekoak, 2004koak, oinarritzat zuen *Life and Opinions of Tristram Shandy* nobela, Laurence Sternena. Honelakoa zen lana: bonbilla baten filamentu keinukaria liburuko orrialde baten gainean proiektatuta. Ikusgai egon zen Londresen izandako erakusketa batean, non komisarioa Sotiris Kyriacou zen. *Amerika (after Franz Kafka)* izeneko, hori ere 2004koa, erakusketa kolektibo bati egindako ekarpen bat izan zen. Erakusketaren izena *Strangers to Ourselves* zen, komisarioa Judith Stewart, eta asilo bila ari diren pertsonen buruzkoa zen. Pavel Büchlerren esku-hartzea honelakoa izan zen: *Everyone is welcome* esaldia idaztea Metropole galerietako aurrealdeko leihoetan; hondartzako hotel zahar bat zen, Folkestonekoa (Ingalaterra). *The Castle (plain english)* izeneko erakusketa baten parte gisa aurkeztu zen. Erakusketaren izena *Whatever happened to socialdemocracy?* zen, komisarioa Carles Esche, eta 2005ean egin zen. Soinuak lan horrek zazpi bozgorailu erabiltzen ditu, Marconik 1926an diseinatuak, eta Franz Kafkaren *The Castle* liburuko pasarte bat ere bai. Zenbait ahotsek ozenki irakurtzen dute liburuaren laburpen bat.

Bukatu aurretik, Pavel Büchlerrek Veneziako 2001eko Biurtekorako egin zuen proiektua erakutsi zuen. Lana, Paul Bayley, Nick Crowe, Graham Parker eta Martin Vincentekin elkarlanean egin, taberna bat gobernatzea izan zen: taberna jarduerarako lizentziaren orde z pabiloira koa jarri, eta Manchester deitu zioten. Geroago, Carles Eschek eskatu zion antzeko zerbait egin zezala Istanbulgo 2005eko Biurtekorako.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.